Astigarragako Udala
udala@astigarraga.eus

HEZKIDETZA SUSTATZEKO PRESTAKUNTZA-ZERBITZUA ASTIGARRAGAN

BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

1. KLAUSULA — KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xedea Astigarragako hezkuntza formalaren eta ez-formalaren eremuan, eta genero ikuspegia zeharlerrotzat hartuta, hezkidetzaren arloko prestakuntza- eta aholkularitza-zerbitzu integrala ematea: besteak bestea, ikasleekin prestakuntza saioak, irakasleekin aholkularitza zerbitzua, herriko hainbat eragileekin saioak...

2. KLAUSULA — JUSTIFIKAZIOA

Zerbitzuak erantzuna ematen dio Astigarragako 2030erako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Planaren G.E.3.2 ekintzari. Ekintza horrek esplizituki ezartzen du beharrezkoa dela udalerriko ikastetxeekin hezkidetzako urteko programa bat bermatzea, modu parte-hartzailean garatua eta ikasleak, familiak eta irakasleak barne hartuta.

Zerbitzua arau-esparru lotesle honen barruan sartzen da:

• 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duena.
• 3/2020 Lege Organikoa (LOMLOE), genero-ikuspegia hezkuntza-sistemaren hasiera eta amaiera gisa txertatzen duena eta ikastetxeko hezkuntza-proiektuan hezkidetza ezartzen duena.
• 8/2021 Lege Organikoa (LOPIVI), haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean osorik babestekoa.
• 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa (Genero-berdintasunaren arloan udalak duen eskumena.
• Eusko Jaurlaritzaren II. Hezkidetza Plana (2025era arte indarrean): irakaskuntza-prestakuntza, alborapenik gabeko materialak, familien inplikazioa eta ikasleekiko indarkeria matxisten prebentzio zuzena.

Testuinguru demografikoa eta beharra

Astigarragak ezohiko hazkunde demografikoa izan du: 7.623 biztanle 2024an, eta % 112,80ko hazkundea 2001 eta 2024 artean. 17 urtetik beherakoak biztanleria osoaren % 22,4 dira, genero-oreka ia absolutuarekin (% 49,8 emakumeak, % 50,2 gizonak). Dinamismo demografiko horrek egiturazko erronkak sortzen ditu, eta horiek hezkidetza-politika iraunkorrak eskatzen dituzte. Euskadiko udalerrien % 70ek ez du hezkidetzan espezializatutako baliabide iraunkorrik; kontratu horrek zuzendu egiten du defizit hori Astigarragan.

Zerbitzuak lau helburu estrategiko ditu:

1. Irakasleei eta hezitzaileei laguntzea hezkidetza eguneroko lanean modu operatiboan, praktikoan eta jarraituan integratzen.
2. Indarkeria matxistaren adierazpen goiztiarrak (sinbolikoa, hitzezkoa, harremanezkoa, espaziala) identifikatzeko eta horiei erantzuteko gaitasuna indartzea.
3. Ikasleekin zuzenean esku hartzea, hezkuntza-etapa bakoitzera egokitutako metodologien bidez.
4. Hezkidetzako ikaskuntza-prozesuetan familien inplikazio aktiboa sustatzea.

3. KLAUSULA —EMAN BEHARREKO ZERBITZUA ETA BALIABIDEAK

OHARRA: *Ordu-bolumenari buruzko oharra: Klausula honetan jasotako ordu-kopuruak orientagarriak dira eta gehieneko eszenatokiaren araberakoak. Ikasturteko ordu definitiboak ikasturte-hasierako koordinazio-bileran zehaztuko dira (ikus 3.2 klausula), ikastetxeek taldeei eta matrikulari buruz ematen dituzten datuetan oinarrituta, bai eta ez-formalean udalak adierazten dituen beharrei buruzkoa. Kontratatutako enpresak ez du eskubiderik aldarrikatzeko gauzatu ez diren orduak, eta Udalak ezin du gehieneko aurrekontu onetsia gainditzen duen zerbitzurik exijitu. Prezio unitarioen sistema aplikatzen da (9/2017 LCSP, 101.2 art.): benetako gastua emandako orduen arabera likidatuko da.*

Zerbitzua bi eremu nagusitan egituratzen da: hezkuntza formala eta hezkuntza ez-formala. Oro har, zerbitzuaren dimentsioa 2025-2026 ikasturtean hezkidetzari buruz egindako diagnostikotik eta ikastetxeek emandako matrikulazio informaziotik

3.1. Eginkizunak eta esku-hartze eremuak

Zerbitzua bi eremu nagusitan egituratzen da: hezkuntza formala (Astigarragako Herri Eskola eta Martuteneko Arantzazuko Ama ikastolako DBHko ikasle, irakasle eta gurasoak) eta hezkuntza ez-formala (Nerabeen zerbitzua edo Gaztelekua eta herriko gizarte-hezkuntza eragileak- hala nola Ongizate Arduradunen Sarea –aurrerantzean OAS– eta bestelakoak).

Hezkuntza formalaren esparruan, ikasleei zuzendutako esku-hartzeen planteamenduari eutsiko zaio (maila eta etapa guztietan, gela bakoitzeko 2 orduko bi saio). Saio horiek tutoreei eta gurasoei itzultzeko saioak. Gainera, hezkuntza formalaren esparruan, prestakuntza eta

aholkularitza eremuak indartuko dira (diagnostikoan identifikatutako erronkei erantzun ahal izateko).

Hezkuntza ez-formalean, orain arte, Nerabeen zerbitzutik bueltan bakarrik egiten zen Hezkidetza arloko lana. Hemendik aurrera, udal-sailetako teknikariak prestatuko dira, eta OAS agenteen itzuleran ere lan egingo da. Laburbilduz, esku-hartzeak sustatuko dira (prestakuntza eta aholkularitza emanez) eta eremuak zabalduko dira.

Oro har, zerbitzuaren dimentsioa 2025-2026 ikasturtean hezkidetzari buruz egindako diagnostikotik abiatuta neurtu da, bai zuzenean esku hartzeko ereduari eusteko, bai aholkularitza- eta prestakuntza-esparru berriak sartzeko kontratu honen berrikuntza nagusi gisa (I. Eranskina – Astigarragako Hezikidetza diagnostiakoaren 3. eta 6. atalak, hurrenez hurrun, "*hezkidetzaren argazkia*" eta "*Erronkak eta aurrera begirako proposamenak eta estrategiak*").

1. EREMUA: HEZKUNTZA FORMALA
Zuzeneko esku-hartzea + Aholkularitza eta prestakuntza

A) Zuzeneko esku-hartzea ikasleei 112 ordu

Astigarragako Herri Eskolako HH5eko, LHko ikasleei eta Arantzazuko Ama DBHko ikasleei zuzenduta dago.

Talde eta maila bakoitzeko bi orduko bi saio egingo dira esku-hartze aktiboko ikasturte guztietan, eta saio bakoitzean gutxienez 2 hezitzaile egongo dira.

Edukiak hezkuntza-etapari egokitu behar zaizkio, jarraian aurkezten den sekuentziari jarraiki.

Talde-kopuru definitiboa —eta, ondorioz, zuzeneko esku-hartzearen ordu-kopuru osoa— ikasturte hasierako koordinazio-bileran zehaztuko da (lehen urtean kontratua indarrean sartu eta lehen 15 egunetan egingo dena, eta hurengotan irailaren lehen 15 egunetan), matrikula erreala berretsi ondoren. Ez da ordu-gehieneko muga finkorik ezartzen: bolumena ikasturteko talde-kopurura egokitzen da. Eskuragarri dauden datu historikoetan eta udalerriaren hazkunde demografiko iraunkorrean oinarritutako gutxi gorabeherako tartea ikasturte akademiko bakoitzeko 180 eta 220 ordu artekoa da. Ikasturtean zehar aurreikusitako gauzatzea gutxitu dezaketen gorabeherak gerta daitezke (egindako tutoretza-saioak, saio bateratuak, ezinbesteko arrazoiak, etab.); 2.4 ataleko kontingentzia-mekanismoak horien tratamendua arautzen du.

Astigarragako Herri Eskola — ikasleei zuzeneko esku-hartzea

Maila	Gelak	Formatua	H/gela	Guztira (orient.)
HH5	4	2 saio × 2 ordu	4 ordu	16 ordu
LH1	3	2 saio × 2 ordu	4 ordu	12 ordu
LH2	4	2 saio × 2 ordu	4 ordu	16 ordu
LH3	5	2 saio × 2 ordu	4 ordu	20 ordu
LH4	4	2 saio × 2 ordu	4 ordu	16 ordu
LH5	4	2 saio × 2 ordu	4 ordu	16 ordu
LH6	4	2 saio × 2 ordu	4 ordu	16 ordu
GUZTIRA				**112 ordu**

Arantzazuko Ama BHI — DBH — ikasleei zuzeneko esku-hartzea

Maila	Gelak	Formatua	H/gela	Guztira (orient.)
DBH1	4	2 saio × 2 ordu	4 ordu	16 ordu
DBH2	4	2 saio × 2 ordu	4 ordu	16 ordu
DBH3	4	2 saio × 2 ordu	4 ordu	16 ordu
DBH4	3	2 saio × 2 ordu	4 ordu	12 ordu
AZPIGUZTIRA	**15 gela**			**60 ordu**

A.2) Tutoreei deboluzioa eta familientzako saioak [18 ordu / ikasturtea]

Ikasleentzako saio bakoitzaren ondoren, tutoreei eta familiei deboluzioa egiteko saioak dira.

Saioa	Formatua	Orduak
Tutoreei deboluzioa — Herri Eskola (3 maila-talde)	1 saio × 2 ordu maila-taldeko	6 ordu
Familiak — Herri Eskola (1 saio etapako)	1 saio × 2 ordu	2 ordu
Tutoreei deboluzioa — BHI (4 maila)	1 saio × 2 ordu mailako	8 ordu
Familiak — BHI Institutua (1 saio etapako)	1 saio × 2 ordu	2 ordu
AZPIGUZTIRA 1A.2		**18 ordu**

B) Irakaslegoaren aholkularitza eta prestakuntza

Astigarragako Herri Eskolako HH5eko, LHko irakasleei eta Arantzazuko Ama DBHko irakasleei zuzenduta dago, hezkidetzarekin lotutako gaiak, gatazkak eta egoerak kudeatzen laguntzeko aholkularitza zerbitzua ematea. Beharren arabera, zerbitzua bi modutan eskaini beharko da, bata, klaustoari zuzendutako prestakuntza, eta bestea, irakasleari zuzenean emandako aholkularitza.

Modua	Edukia / hartzaileak	Formatua	Orduak
PRESTAKUNTZA klaustroari	Ikastetxe bakoitzeko klaustro osoa. Edukiak iraileko bileran finkatzen dira diagnostikoaren arabera	**4 saio × 2 ordu ikastetxeko (egutegia claustro bakoitzarekin adosturik)**	**16 ordu (8 ordu × 2 ikastetxe)**
AHOLKULARITZA eskaeraren arabera	Ikastetxe bakoitzeko zuzendaritza, orientatzaile eta tutoreak.	**Ikastetxeko 14 orduko poltsak eskuragarri (eskaeraren arabera kontsumitu, 1-2 orduko saioetan)**	**28 ordu (14 ordu × 2 ikastetxe)**
GUZTIRA AHOLKULARITZA ETA PRESTAKUNTZA (hezkuntza formala): 44 ordu / ikasturte			

Laburbilduz:

1. EREMUAREN LABURPENA	Orduak
1A — Ikasleei zuzeneko esku-hartzea (gutxienez 2 hezitzaileekin saio bakoitzean)	172 ordu
1A.2 — Tutoreei debolazioa + familiak (gutxienez hezitzaile/aholkulari 1)	18 ordu
1B — Irakaslegoaren aholkularitza eta prestakuntza (gutxienez aholkulari 1)	44 ordu
1. EREMU GUZTIRA	**234 ordu**

2. EREMUA: HEZKUNTZA EZ-FORMALA
Nerabeen zerbitzua edo Gaztelekua, OAS eta Udala

Hezkuntza ez formalaren esparruan hiru lan-ildo artikulatzen dira:

Nerabeen zerbitzua - Gaztelekua

Nerabeen zerbitzua aholkularitza informal eta prebentiborako gune gisa erabili behar da, nerabeekin egunero lan egiten duten profesionalentzako lankidetza, prestakuntza eta aholkularitza emanaz eta nerabeei prestakuntza saioak eskainiz.

Beraz, bi hartzaile-talde bereizten dira:

• Hezitzaileentzako aholkularitza: 8 orduko ordu-poltsa.

• Nerabeak (erabiltzaileak): berdintasunezko harremanei eta harreman afektibo-sexualei buruzko sentsibilizazioa eta aholkularitza. 2 orduko 4 saio (urria, abendua, otsaila, apirila, ekaina), saio bakoitzean gutxienez 2 hezitzaile daudela.

Ongizate Arduradun Sarea - OAS

Lehiaketa honen esparruan, OAS sareko kideak prestatzeko, sentsibilizatzeko eta aholkatzeko ekintzak antolatu behar dira.

Gaur egun, OAS sarea osatzen duten eragileak hauk dira:

• Astigar Dantza Taldea
• Mundarro futbol kirol elkartea
• Astigarragako kiroldea
• Norberto Almandoz Musika Eskola
• Xaguxar Aisialdi Taldea
• Astigarragako Guraso Elkartea

Hala ere, Udalak erabaki dezake OASeko kide ez diren beste udalerriko eragileei aholkularitza edo prestakuntza eskaintzea.

Prestakuntza eta sentsibilizazio saioak: 2 orduko 2 saio (4 ordu guztira)
Aholkularitza-zerbitzua: kideek eskatuta, 24 orduko ordu-poltsa.

Udala

Udal langileen prestakuntza eta sentsibilizazioa: 2 orduko saio bat.

Edukia eta formatua	Modua	Orduak
Nerabeen zerbitzuko erabiltzaile nerabeak (12-16 urte). Sentsibilizazioa eta aholkularitza harreman parekideen, afektibo-sexualak eta indarkerien prebentzioan. (sesio bakoitzeko gutxienez 2 hezitzaile)	Sentsibilizazio-saioak + idatzizko erantzunak (≈ 4-5 talde-saio + 2-3 ordu)	**8 ordu**
Nerabeen zerbitzuko hezitzaileak. Aholkularitza aisialdi-espazioan detektatutako egoera zehatzetarako, genero-ikuspegidun jarduerak diseinatzeko eta hezkidetza ohiko programazioan txertatzeko. (gutxienez hezitzaile/aholkulari 1)	Eskaeraren araberako 1-2 orduko saioak (poltsa eskuragarri)	**8 ordu**
Herriko erakundeetako ordezkariak: Mundarro Kirol Elkartea, Xaguxar, Gazte Asanblada, Emakumeon Etxea, Musika Eskola, Astigar Dantza Eskola,-eta Udalak zehaztutako beste batzuk. Prestakuntza hezkidetzan, bakoitzaren jardun-esparrura aplikatuta. (gutxienez hezitzaile/aholkulari 1)	2 saio × 2 **ordu** (talde txikiak; gehienez 20 pertsona)	**4 ordu**
Hezkidetzan sentsibilizazioa eta oinarrizko prestakuntza Udaleko langileentzat. (gutxienez hezitzaile 1)	1 saio × 2 **ordu**	**2 ordu**
OAS sareko kideentzako aholkularitza (gutxienez aholkuari 1)	24 orduko poltsa (1-2 orduko saioetan)	24 ordu
GUZTIRA HEZKUNTZA EZ-FORMALA: 46 ordu / ikasturte		

3.2. Hartzaileak eta saio-plangintza

Ikasturte bakoitzaren hasieran (irailaren bukaeran) Udaleko Berdintasuna, Elkarbizitza eta Partaidetza sailak, eta enpresa esleipendunak lehen koordinazio-bilera edo -bilerak egingo dituzte. Gainera, udalak erabaki dezake bilera horietan hezkuntza formaleko irakasle eta gurasoek eta ez-formaleko eragileak parte hartzea.

Bilera horietan, zehaztuko dira ikasturteari begira eskainiko diren ikasleentzako eta nerabe zerbitzuko erabileentzako saio kopurua, edukiak, kronograma eta zerbitzuaren beste funtsezko alderdi batzuk. Baita eta, OAS sarearekin eta gainerako eragileekin egitea aurreikusten diren saio-kopuruak eta ekintzak ere, eta horien edukia, kronograma....

Prestakuntza eta aholkularitza zerbitzuetarako aurreikusitako lan-orduak moldagarriak dira; beti ere, sortzen diren beharrei modurik eraginkorrenean erantzuteko baliatuko dira eta zerbitzu-kontratuaren guztizko ordu kopurua mantendu egingo da. Dena den, Sektore Publikoko Kontratazioaren Legeak arautzen duen kontratu-aldaketa alde batera utzita, udalak erabaki dezake lan-esparru batean erabili ez diren ordu-saioak beste esparru batean erabiltzea.

3.3. Funtzionamendua eta koordinazioa Udalarekin

Zerbitzuaren jarraipena Berdintasuna, Elkarbizitza eta Partehartze Sailak egingo du, bera baita zerbitzuaren arduraduna. Beraz,esleipendunaren eta zerbitzu-hartzaileen arteko koordinatzaile- lanak Berdintasuna, Elkarbizitza eta Partehartze teknikariak egingo ditu.

Ikasturte bakoitzeko gutxienez lau koordinazio-bilera egingo dira:

1. bilera (ikasturte hasieran): ikastaroa planifikatzea, taldeak eguneratzea, ekintzak zehaztea eta atariko egutegia ixtea. Entitate esleipendunak agenteekin adostuko ditu ordutegi eta data zehatzak, udal teknikarien oniritzia jaso ondoren.
2. bilera (abendua edo urtarrila): lehen hiruhilekoaren balorazioa eta jarraipena.
3. bilera (martxoa edo apirila): bigarren hiruhilekoaren jarraipena.
4. bilera (ikasturtea bukatu ondoren): ikastaroaren balorazio orokorra eta hurrengo bilerarako proposamenak.

Txostena emateko betebeharrak:

• Hilean behin: egindako orduen taula, Berdintasuna, Elkarbizitza eta Partehartze sailari.
• Hiru hilean behin: jarraipen-txostena, erabiltzaileak, landutako gaiak, gorabeherak, gogobetetze-inkesten emaitzak, egindako orduak eta egokitzapen-proposamenak jasoko dituena. Sexuaren aldagai bereizia jaso beharko du.
• Uztaila: urteko memoria xehatua, gutxienez: parte-hartzaileen kopurua (adinaren, sexuaren eta mailaren arabera); landutako gaiak; gorabeherak; materialen erabilera; eraginaren ebaluazioaren emaitzak funtsezko errendimendu-adierazleekin; hobetzeko proposamenak. Datu guztiek genero-azterketa jaso beharko dute.

Hileko eta hiruhileko txostenen txantiloiak Udalak emango ditu ikasturte bakoitzaren hasieran. Txostenak euskaraz aurkeztuko dira, euskarri digitalean: ale bat digitalki sinatuta eta beste bat formatu editagarrian. Horiek telematikoki aurkeztu beharko dira udaletxeko erregistro telematikoan. Koordinazio-lanak ez dira zenbatuko kontratuaren ordu gehigarri gisa.

3.5. Giza baliabideak

Zerbitzua emateko behar diren langileak izendatuko ditu enpresak. Gutxienez izendatu beharko ditu:

- Hezkuntza formaleko ikasleei eta Nerabeen Zerbitzuko erabiltzaileei zuzendutako aurrez aurreko saioentzako bi hezitzaile, eta aurrez aurreko gainontzeko saioentzako hezitzaile bat.
- Aholkularitza emateko gutxienez pertsona bat, hezitzaileen artekoa edo beste bat.
- Koordinatzaile tekniko bat, hezitzaile eta aholkurien artekoa, edo beste bat.

Guzti horiek baldintza hauek bete behar dituzte:

- Unibertsitate titulua eta 100 orduko ikastaroa genero-berdintasunean edo hezkidetza arloan.
- Euskara C1C1 maila.
- Haur eta nerabeekin harreman zuzena edukiko duten petsonek, Sexu-delitugileen Erregistro Zentralean inskribatuta ez egotea.

3.6. Baliabide materialak eta entregatzekoak

Esleipendunak gutxienez material hauek diseinatu eta emango ditu:

• Ikasleentzako material didaktikoa: LHko eta DBHko etapetarako, euskaraz, adinari egokituta.
• Irakasleentzako eta hezitzaileentzako tresnak: kasuen gidak, identifikazio-fitxak, indarkeria- egoerei erantzuteko txantiloiak.

Material guztia **euskaraz** egongo da. Beharrezkoa denean, gaztelaniazko bertsioa onartuko da, baldin eta bertsio nagusia euskarazkoa bada. Hizkuntzaren eta irudiaren erabilera ez-sexista bermatuko da material eta komunikazio guztietan. Gelan sartzeko eta kolektibo zein profesionalei aholkuak emateko sortzen diren material guztietan genero-ikuspegia, ikuspegi intersekzionala eta giza eskubideen ikuspegia bermatuko dira.

Kontratuan zehar sortutako material guztiak Udalaren jabetzakoak dira eta ikasturte amaierako urteko memoriarekin batera entregatu beharko dira.

4. KLAUSULA — HIZKUNTZEN KUDEAKETA

Kontratu honek nahitaez bete behar du hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6. artikuluan eta Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean ezarria eta, besteak beste, Udalaren barne erabilera plantean eta bestelako arauetan erregulatua.

Halaber, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legeak arautzen dituen herritarren hizkuntz-eskubideak bermatu beharko dira.

Baldintza agiriotan ezartzen diren hizkuntza baldintzek kontratuaren funtsezko obligazio izaera dute Sektore Publikoko Kontratuen Legearen ondorioetarako, eta hortaz, kontratuaren gainerako baldintzak ez betetzeak dituen ondorio berdinak izango ditu.

Sektore Publikoko 9/2017 Kontratuen Legearen 62.artikuluari jarraiki, kontratuaren arduradunak kontratua nola betetzen den ikuskatuko du, hizkuntza baldintzak behar bezala betetzen diren jarraipena egin, eta horren inguruan beharrezko erabakiak hartu eta jarraibideak emango ditu.

Enpresa esleipendunak Udalaren hizkuntza araudiaren arabera jokatuko du, kontratuaren xede diren jarduera guztietan: bai ahozkoetan, bai idatzizkoetan.

a) Herritarrekiko harremanak

Kontratu honen xede diren prestazioaren berezko ezaugarriak direla-eta, kontratuaren zerbitzu hizkuntza nagusia euskara izango da; beraz, eragile eta erabiltzaileekiko harremana euskaraz izango da nagusiki, eta euskaraz izatea sustatuko da.

- Kasu guztietan, herritarren hizkuntza eskubideak bermatuko dira.
- Administrazioarekin eta hirugarrenekin harremana duten neurrian, kontratatutako enpresako langileek administrazioak berak bete behar lituzkeen pareko baldintzak

bermatu beharko dituzte, hizkuntza gaitasunei dagokienez, Apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak, EAEko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duenak, 18. artikuluan ezarritakoa betez. Horretarako, Europako Erreferentzia Markoa hartuko da kontuan.

Hala, enpresa esleipendunak izendatzen dituen pertsonek, hala titularrek nola ordezkoek, gai izan beharko dute beren eginkizunak bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan egiteko: ahoz zein idatziz.

b) Langileen hizkuntza gaitasuna

Horrenbestez, lanpostu hauetan arituko diren langileek hizkuntz maila hauek egiaztatu beharko dituzte:

Enpresaren eta udalaren arteko koordinazio-harremanetarako langilea

C1C1 mailako euskara egiaztagiria

Aholkulari, hezitzaile eta prestatzaileak

C1C1 mailako euskara egiaztagiria.

c) Hizkuntza paisaia

Jarri beharreko errotuluak, kartelak, seinaleak edota antzeko elementuak euskaraz jarriko dira.

d) Udalarekiko harremanak

Enpresa esleipendunak Udalarekin dituen ahozko zein idatzizko harremanak Udalaren lan hizkuntzaren araberakoak izango dira Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzko 179/2019 Dekretuaren III. kapituluan zehatutako aukerari jarraiki.

Astigarragako Udalaren 2023-2027 Erabileraren Plan Estrategikoan zehaztutakoaren arabera, udal osoa da euskarazko administrazio unitatea; beraz, enpresa esleipendunak udalarekin dituen harremanak, ahozkoak (bilerak, adibidez) nahiz idatzizkoak (txostenak zein memoriak, esaterako), euskaraz izango dira.

5. KLAUSULA — BERDINTASUN BALDINTZAK

Zerbitzua genero-ikuspegiaren zeharkakotasunetik eskaini behar da, eta esleipendunak Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eraginkorrerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan eta martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan ezarritako printzipioak bete beharko ditu.

Materialak eta komunikazioa

- Kontratuaren esparruan sortutako dokumentazio eta material guztiek ez dute hizkera idatzi eta ikonikoa modu sexistan erabiliko. Genero ikuspegitik sortutako materiala izango da.
- Emakumeen irudi diskriminatzaile edo estereotipatu oro saihestuko da, eta berdintasunaren, presentzia orekatuaren, erantzukidetasunaren, rol-aniztasunaren eta genero-identitateen balioak sustatuko dira.

Langileak

• Zerbitzua ematen den bitartean ez da jarrera sexistarik onartuko. Langile guztiek hizkera ez- sexista erabiliko dute.
• Esleipen-irizpide gisa, positiboki balioetsiko da erakundeak barneko berdintasun-plan bat izatea edo egiten ari izatea.

Eduki hezkidetzailea

- Zerbitzuaren edukiek eta metodologiek genero-ikuspegia sartuko dute sakon, eta ez dira azaleko sentsibilizaziora mugatuko. Indarkeria matxistaren adierazpen goiztiarrak, maskulinitate hegemonikoaren aurkako kritika eta emakumeen agentzia jorratuko dira.
• Proposatutako metodologiak ez dira jarduera puntualetan eta isolatuetan oinarrituko, jarraipeneko prozesuetan eta jarraipenaren kulturan baizik.

6. KLAUSULA — HAURRAK ETA NERABEAK

Esleipenduna behartuta dago Haurrak eta nerabeak indarkeriatik begiratzeko babes integralaren 8/2021 Legea (LOPIVI) betetzera, eta arlo horretan udalak ematen dizkion jarraibideak betetzera, besteak beste, udal plana jarraitzea...

Gainera, zehazki zerbitzu honentzako protokolo propioa egin beharko du eta udalean aukeztu onartua izan dadin. Udalaren esku gelditzen da lizitazioan parte hartzeko B kartazalean aukeztutako dokumentua egokitzeko edo osatzeko eskatzea, edota berri bat lantzeko eskatzea, udalak horretarako ematen dizkion jarraibidearen arabera.

7. KLAUSULA — ESLEIPENDUNAREN BESTE BETEBEHAR BATZUK

Aurreko klausuletan ezarritako betebeharrei kalterik egin gabe, esleipendunak honako betebehar hauek hartuko ditu bere gain:

1. Zerbitzua ematea plegu tekniko eta administratiboen eta aurkeztutako eskaintzaren arabera, Udalaren jarraibideei jarraituz.
2. Kalitatezko zerbitzua emateko behar diren giza baliabideak eta baliabide materialak ematea.
3. Koordinazio-bileretara joatea eta eskatutako txostenak eta memoriak epean aurkeztea.
4. Konfidentzialtasuna gordetzea eta datu pertsonalak babesteko araudia betetzea.
5. Berdintasun Arloaren aurrean solaskide bakarra izendatzea, bi hizkuntza ofizialetan komunikatzeko gaitasuna izango duena, ahoz zein idatziz.
6. Ohiko koordinaziorako helbide elektroniko bat eta telefono-zenbaki bat (WhatsApp onartua) ematea.
7. Jarduera guztietan konfiantza- eta segurtasun-giroa bermatzea: saioak, materialak eta esku-hartzeak errespetuzko guneak izango dira.
8. Edozein gorabehera esanguratsuren berri ematea Berdintasuna, Elkarbizitza eta Partehartze Sailari 24 orduko gehieneko epean (indarkeriaren adierazpen larria, arrisku-kasua, etab.).
9. Kontratuaren emaitzak norberaren erabilerarako ez errepikatzea eta hirugarrenei ez helaraztea Udalaren berariazko baimen idatzirik gabe.

Laura Roux Gil
Berdintasuna, Elkarbizitza eta Partaidetza teknikaria